

# DROGETEN

ITTURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 217. zkia. 2013ko azaroa



**Urko puntan,  
nor 1.180 aldiz?**



ZERBITZU INTEGRALA

# LANTALDE PROFESIONAL

# BIKAINA, IZEN-ABIZENEKIN

TELEFONO BIDEZKO ARRETA



URGENTZIAK  
24 ORDUTAN,  
688 608 142

Urgentzietako Kostu Gehigarria.



## AKREDITAZIOAK

**Antonio Murillo** Doktorea

Hezur Birsorkuntza eta Ehun Bigunen Maneiuko Zuzendaria.

**Leidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua.

**Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Inplantologia Masterreko Irakaslea.

**Leidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea.

**Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Institutioetako Irakasle gonbidatua

**Madrilgo Unibertsitate Konplutensean,**

**Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan,**

**eta Sevilla, Bartzelona, Almeria, Lleida,**

**Malaga... Unibertsitateetan.**

**Ainhoa Zulueta** Doktorea

Odontologian Lizentziatua.

**Euskal Herriko Unibertsitatea.**

Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian.

**Leongo Unibertsitatea.**

Aho Kirurgian Diplomatu.

**Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatu.

**Madrilgo Unibertsitate Konplutesean.**

Hortz-Estetikan Diplomatu.

**Autran Institutua. Bartzelona.**

Etengabeko Formakuntza.

**New York-eko Unibertsitatea.**

Oklusioan Graduondoa.

**Anibal Alonso doktorea.**



## ETENGABEKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera:

**8:00**etatik **22:00**etara  
zapatuetan:

**10:00**etatik **14:00**etara

## ETXEZ-ETXEKO ARRETA-ZERBITZUA

Etxeako arreta:

Pazientea jaso eta etxera itzuli

**GALDETU!**



## EZKAINZA BEREZIAK

Jarraitu urte osoan gure sasoian-sasoiko promozioak.

Abantaila ekonomiko handiak eta bestelako aukera odontologikoak.

**Aprobetxatu!**

## MUTUA ETA ASEGUROAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, MUTUA UNIVERSAL, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, PREVISORA BILBAINA, SANTA LUCÍA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

... **GALDETU!**



**IRAZABAL**

clínica dental Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

**ARGITARATZAILEA:**Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.**HELBIDEA:**Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50.  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org**ERREDAKZIO TALDEA:**Alazne Aiestaran,  
Igone Amesti, Ibaia  
Azagirre, Leire Elustondo,  
Estibalitz González,  
Ane Saéñz eta Dorleta Vidal.**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Unai Ruiz.

**LAGUNTZAILEAK:**Amaia Arriaga,  
Antonio Hernández 'Cuco',  
Fede Iturriagagoitia,  
Patxi López, Pello Mugarza,  
Valentín Mugarza  
eta Ioritz Rasero.**ARGAZKIAK:**AECC, Izaro Andres,  
Igone Amesti, Artarrai  
Mendi Taldea, Ibaia  
Azagirre, Xabier Ciarsolo,  
Leire Elustondo,  
Estibalitz González,  
Valentín Mugarza,  
Unai Ruiz, Ermuko Udala  
eta Dorleta Vidal.**PUBLIZITATEA:**

688 63 28 76.

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**Ainitze Antxia, Nora Mateos  
eta Olatz Vidal.**TIRADA:**

2.400 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-215/94.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko hegaztiak

*...Fede Iturriagagoitiak batuta*

## ZERTZETA *Cerceta común Anas crecca*



Europako ahateen artean txikiena da bera. Lumen kolore kontuetan oso desberdinak dira arra eta emea: hegazti askotan bezala, arraren lumen kolore bizi eta distiratsuek amorantearen aurrean erakargarri izateko funtzioa dute; emearen lepoalde nabarra, ostera, ezinbestekoa da arrautzak berotzen dituen sasoiaren ezkutuan mantentzeko bera eta batez ere bere gorpuzpekoak. Gurean gutxi batzuk daude: urtero Aixolako urtegitira eta hara isurtzen duten erreka zuloetara datoz instintiboki, negu aldera, bandadaka. Atsedean hartu ostean hanka egiten du, lur epelagoetaranzko bidaiari jarraituz. Gehingoetan uretan topatzen du zer jan: dzanga! urpera, tentetu burua, astindu eta dzanga! berrito barrura. Ur-bazterrean ere saiatzen da, belarra txi-txi pikatuz edo orbel artean arakatzuz, koko eta zomorro bila beti.

## Hilabete honetan...

**MUNDUKO AHOTSAK**....4

Gabriela Buchicchio

**ELKARRIZKETA** .....5-7

Ane Enzunza, Immigrazio Teknikaria

**MALLABIAN ZER?** .....8-9

Izaro Andres Euskadi Irratian

**MOTZEAN** .....10

Euskararen Eguneko ekitaldiak

**XXIV. SAN MARTIN** ..11-15

Argazkiak / Irabazleak / Giroa

**ERMUAN ZER?** .....19

Ander González idazlea

**BOTEPRONTOAN** .....20

Santos Vega

**KIROLZALE** .....21

Unai Ruiz mendizalea

**IRITZIA** .....22

Osasun Sistema Publikoaren alde

**SALEROSKETAK** .....23

Saldu, erosi edo agurtu

**ANTZINAKOAK**.....24

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

**KALEKO INKESTA** .....25

Ortua izango zenuke etxean?

**AGENDA** .....26

Abenduko agenda

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako SaiburuordetzaDEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

# Gabriela Buchicchio

Gabrielaren aitona-amonek Galizia eta Italiatik alde egin zuten gaztetan, guda garaian; hamarkada batzuk beranduago kontrako bidea egin du berak. 2001ean etorri zen Gabriela Buenos Airesetik, 36 urterekin, bihotzak agintzen zionari jarraituta, lana, etxea eta familia bertan utzita.

## - Nolako zen zure bizitza Argentinan?

Hezkuntza bereziko irakasle nintzen eta eskola batean egiten nuen lana goiz eta arratsalde, itsuekin. Iluntzean minusbaliatuekin jarduten nuen, gobernu kirol programa baten barruan. 15 urte neramatzan lan horretan.

## - Zer dela eta etorri zinen?

Amak familia du Galizian eta Barakaldon eta bisitan etortzen nintzen noizean behin. Kasualitatez nire senarra ezagutu nuen, ermuarra da eta hona etortzea erabaki nuen: apartamentua saldu eta lana, lagunak eta familia utzi nituen bat-batean.

## - Aldaketa erraza izan zen?

Ez, hiri handitik nentorren eta kaleko jendetza, trafikoa eta etengabeko mugimendua ohikoak ziren niretzat. Hemen, oheratzean, hango gaueko zaratak faltan botatzen nituen... Oso gogorra egin zitzaidan eta horren eraginez, etorri eta hilabetera derramea izan nuen garunean, estresagatik.



## - Lasaitasun handiegia?

Bai, orain gainera baserri batean bizi naiz, pentsa! Etorri nintzenean San Roken bizi nintzen eta lehen 4 hilabeteak ez nintzen ia etxetik irteten, ez nekielako bueltatzen: hainbeste kale-txo estu leku guztietatik!

## - Gustatu zitzaizun, baina?

Bai, leihoa zabaldu eta mendia ikustea asko estimatzen dut oraindik ere; hirian pentsaezina litzateke.

## - Eta alde txarra?

Hiri handi batek eskaintzen dituen aukerez ezin gozatzea: dohaineko ekin-tzak, zinea, dendak... Halere, herriak beste aukera batzuk ematen dizkizu.

## - Zerk harritu zintuen?

Santu guztiak ospatzen direla! Tabernetan hondakinak lurrera botatzea harriagarria iruditu zitzaidan eta baita jendea beti kalean egotea ere. Segur-

tasun kontua dela esango nuke, hemen ez baitago arriskurik. Buenos Aires, al-diz, arriskutsu samarra bihurtu da.

## - Zertan egiten duzu lan orain?

Lana topatzen ez nuenez, eskulanei ekin nien: portzelana hotza lantzen dut. San Martin azokan parte hartu izan dut hainbatetan. Orain, Madrilgo saltzaile batek erosten dit egiten du-dan guztia. Oso pozik nago.

## - Euskara ikasteko asmoa duzu?

Gaixotu nintzenean, mintzamina eta memoria zati bat galdu nituen. Errehabilitazioa nire kabuz egin behar izan nuen. Lanbide-Heziketan eta euskalte-gian eman nuen izena. 6 urtez ikasi nuen euskara. Ostean, Berbalagunen hiruzpalau urte eman ditut, baina lana dela-eta, laga behar izan dut. Semearekin praktikatzen dut orain.

Dorleta Vidal

**SAN ANTONIO** OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63  
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua  
euskalduntzen



**Ane Enzunza, Ermuko Udaleko Immigrazio Teknikaria:**

**“Immigrazioa errealitatea izanik,  
guztion ardura da elkarbizitza zaintzea”**

2007an ekin zion Ane Enzunzak Ermuko Udaleko Immigrazio Teknikari lanari. Gernikarra da baina Zornotzan bizi da, eta Soziologian lizentziatua. Immigrazioari eta bazterketari buruzko hamaika ikerketa egin izan ditu, horietako bi Ermuan, 2000. urtearen bueltan. Atzerriko immigranteak antzinatek etortzen hasiak ziren Ermura eta, Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritza sortu barik zegoen arren, *“herrian bazegoen jakin-mina: zenbat etorkin zegoen, nolakoa zen tokiko estruktura soziala...”*, dio Anek. Ordutik, dezente aldatu dira gauzak esparru gehienetan.

**- Zure lanpostua sortu berria zen, ezta?**

Bai. 2001ean Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritza sortu zen; ordura arte, immigrazio zereginak Gizarte Gaien atalean lan-tzen ziren. Lehen urteetan immigrazioaz arduratuko liratekeen 4 estrukturak sortu zituzten, tartean 'Harrerako Sare Publikoa'. Horren helburua zen hainbat Udalei diru-laguntzak ematea Immigrazio teknikariak kontratatu eta diagnosiak eta planak gauzatzeko.

**- Beraz, herri bakoitzak plan propioa du?**

Herri guztiek ez. Gaur egun 15 teknikari inguru daude Euskadin. Bere garaian 'Harrera Sarea' sortzeko baldintzak betetzen ez zituzten herriek ezin izan zuten beranduago programan sartu, lanpostu berriak sortzeko diru-laguntza bukatu zelako. Horrek ez du esan nahi immigrazioa ez dutenik lantzen, izan ere, Eusko Jaurlaritzak bere Immigrazio Plana du.

**- Zenbat etorkin dago Ermuan?**

Zaila da esatea, askok denbora luzea daramatelako Ermuan eta 'naturalizatu' egin direlako, nazionalizatu egin direlako. Horiek kenduta, atzerriko nazionalitatea duten 915 lagun dago errol-datuta gaur egun herrian, biztanleriaren %5,6 inguru. Urte batzuk barru, 2. eta 3. belaunaldiak hazten direnean, etorkinak deitu beharre-



an, gutxiengo etnikoek hitz egingo dugu.

**- Kopuru handia da?**

Ez. Jendeak etorkin berriak ikusten ditu kalean, baina krisia dela-eta, aurretik zeuden beste batzuk alde egin dute. Beste batzuentzat ezinezkoa litzateke bueltatzea, ihes egiten etorri direlako edo etorri ahal izateko dena jarri zutelako jokoan. Gaur egun, aurrera egiteko aukera gehien dutenak Hego Amerikako emakumeak dira, gerora etxeak garbitzen hasiko direnak.

**- Zein da herriko jendeak etorkinez duen pertzepzioa?**

Krisia dela-eta aldaketa egon dela esango nuke, jarrerak txarrera doaz eta tolerantzia gutxitu egin da, us-te okerrak direla medio: etorkinek ez dute diru-laguntzarik jasotzen etorkin izate-

agatik, baizik eta hemen bizi ziteagatik. Euskal Herriko gizarte politikak hemen bizi diren guztientzako dira, hemen jaiok izan edo ez, betebeharrak batzuk betetzen badira. Etorkinek ez dute sare familiarrik eta beharrak arinago jartzen dira agerian.

**- Egoera txarrak bizi dituztenak ere badaude...**

Bai, langabezian daude etorkin asko, diru-laguntzarik jaso barik, eta beste asko esplotatuta daude edota oso lan zorrotzak egiten. Immigrazioak aurpegi ugari ditu, baina hori ez da ikusten.

**- Eta horren guztiaren aurrean, zein da zure lana?**

Immigrazio planak sortu eta gauzatzeko. Oraindik indarrean dagoen I Planean 25 helburu jaso ziren, 4 esparrutan banatuta: harrera, integrazioa, sentsibilizazioa eta kooperazioa. Horiek bultzatzeko hainbat ekintza-ardatz daude, batzuk etorkinei baino ez daude zuzenduta eta beste batzuk herritar guztien

inplikazioa eskatzen dute.

**- Helburuak betetze aldera egiten diren ekintzen artean, zeintzuk nabarmendu-ko zenituzke?**

Harreraren esparruan, 'Harrera programa' aipatuko nuke. Irailetik abendura bitartean talde bat sortzen dugu, urte horretan etorritako immigrantekin zein aurretik etorritakoekin ere, hemengo baliabideak oraindik ezagutzen ez badituzte. Gizarte eta lan kontuetan formazioa eskaintzen zaie eta bisita gidatuak egiten dituzte, lanari lotutakoak (Armeria Eskolara, Elgoibarko IMH-ra...) eta baita irteera kulturalak ere.

**- Zeintzuk gai jorrazten dira formazioan?**

Berdintasuna, komunikazio eta gaitasun sozialak, atzeritarren legea, hemengo hizkuntza-errealitatea eta euskara, osasun-sistemak nola funtzionatzen duen, nola ordaintzen dugun... Lanari dagokionez, guretzat oso garrantzitsua da

***"Etorkinek ez dituzte diru-laguntzak jasotzen etorkin izateagatik"***

**ERIKA SARRIUGARTE ITURRIAGAGOITIA**

(2013ko azaroaren 5ean)

*Erika, zure alaitasunez beteta daukagu  
utzi duzun hutsunea*

**MALENGO ELKARTEA**



immigranteak gure inguruko industriaren berezitasunez jabetzea, hots, industria espezializatua dugu eta lan egiteko formatuta egon behar da. Etorkin askok lan egin nahi dute, lan, lan eta lan. Nola ulertarazi baina, hemen dauden lanak ez dira ortura joan eta marrubiak jasotzea?

**- Integrazioaren arloan, zer nolako programak dituzue?**

Emakumeen jabetuntza eskola otsailatik ekainera bitartean, esaterako. Aurten gainera, EHUrekin hitzarmena egin dugu laguntza psikosozial taldea sortzeko, krisiak eragin dituen zenbait egoera larri erantzun ahal izateko.

**- Sentsibilizazioaren alorrean zer lantzen duzue?**

Aniztasun eskola eta, batez ere, 'Hitz egidazu' bo-

luntariotza linguistiko programa dugu. Azken horren bitartean, etorkin bat eta ermuar bat astero ordubetez biltzen dira bi helbururekin: bata linguistikoa eta kulturala bestea. Alde batetik, etorkinek ondo hitz egiten dutela eman dezakeen arren, bankura edo medikuarenera joaten direnean, esaterako, oso zaila egiten zaie nahi edo behar dutena hitzez azaltzea. Maila horretako egoerei erantzuteko hizkuntzan trebatzea du xede programa honek.

**- Eta helburu kulturalak?**

Programa honek kultura-artekotasuna bultzatzen du, harremanak sortzen laguntzen duelako: telefono eta argiaren faktura ulertzeko laguntza behar dutenean, emakumeek dituzten antisorgailuen aukeren berri

## "Etorkinak gure inguruko industriaren berezitasunez jabetu behar dira"

emateko, ikastaroren batean parte-hartzea bultzatze eta laguntzeko... Boluntarioek beste esparru normalizatu batzuk bereganatzen laguntzen diete etorkinei, era informalean, askotan horiek ez baitakite zeintzuk aukera dituzten ezta nolako harrera izango duten.

**- Zenbat lagunek hartzen dute parte 'Hitz egidazu' programan?**

60 etorkin inguru dago eta, horiekin batera, 30 bat boluntario. 10 astez ordubete elkarrekin egon eta gero, programa bukatuta ere, biltzen jarraitzen dute batzuk. Elkartasun saretxo-edo sortzen da.

**- Garrantzitsua da herritarrek horrelako kontuetan inplikatzeko?**

Immigrazioarekin ados egon edo ez, ulertu edo ez, immigrazioa gure errealitatea da eta izango da. Horregatik uste dugu bakoitzak bere esku duena eman behar duela. Nire esku dago herriko ateak ixtea? Etorkinen kopurua mugatzea? Ez, ez dago. Zer dago nire esku? Elkarbizitza hobetu eta zaintzea. Ez duzu zure bizilagua

na 20 urtetan agurtuko? Ez duzu beraz ezer jakin nahi? Pausua eman behar dugu.

**- Immigrazioaren Aldeko Itun Soziala aipatzen da maiz komunikabideetan. Zer da Itun Soziala?**

Eusko Jaurlaritzak 2012an bultzatu zuen dokumentua da, etorkizuneko gizartea nolabait irudikatzen duena eta eztabaidarako markoa zabaltzen duena. Hainbat eragileren artean landutako proposamen teorikoa da eta herri mailan martxan ipintzea eskatu ziguten. Berebiziko garrantzia duela iruditzen zait. Azkenean, era batera edo bestera elkarbizitza lortu behar da eta itunak jokalekia markatzen du. Elkarbizitzarako oinarriak zehazten ditu eta horietan guztiok gaude ados, orain, helburu horiek lortzeko baliabideak garatu behar ditugu herri bakoitzean. Kultura-artekotasuna ezin da airean utzi, derrigortu egin behar da, eta horretarako eragile sozialak identifikatu eta horiekin lan egin behar litzateke.

Dorleta Vidal

Ane Enzunza, ezkerrean, Atzerriko Immigrazioari buruzko Barometroaren aurkezpenean, 2012an.



# AMAIA HARATEGIA



**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

# SEHIGA



**LAN-BABESA**

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454 / Fax: 943 033 821  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Iberikoetan  
espezialistak

*Mayte*

Denda  
berria

VI Centenario 5  
943 172 412  
ERMUA



Pintxoak  
Razioak  
Eguneko platera 5'5€  
Menu bereziak enkarguz

**Andaluz taberna  
Diputazioa z/g - Ermua**



Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Izaro Andres, Euskadi Irratiko kolaboratzailea:

# “Esperientzia honetatik asko ikasten nabil”

**- Zertan zabilta momentu honetan?**

Komunikazioa ikasten nabil Donostian, Deustuko Unibertsitatean. Bigarren urtea da eta oso gustora nabil.

**- Zure denbora librien zer egitten dozu?**

Denbora librian zentzue pixkat desplazatue dauket. Aste barrue eta asteburue oso garbi bereizita daukadaz, larregi. Aste barruen buru belarri ibiltzen naz lanekin eta asteburuen buru belarri lagunekin. Bixen bittartien, ahal doten danetan Dani izeneko lagun batekin abesteko geratzen naz. Bera gitarra jolite da, blues musika egitten dogu. Astiro-astiro seriotasun pixkat hartu eta Donostiko tabernetako Jam Session-etan parte hartzen hasi nahiko geunke. Horretaz gain, idaztai be ekin dotzet. Ipuintxo batzuk, poemak... Hiru ‘nobela’ idatzi dittut oso maila amateurrien...

**- Irratixen entzun zaittugu berbetan...**

Bai, irailetik Euskadi Irratiko ‘Hiri Gorrian’ programan hartzen dot parte, beno programako hortako azpi atal baten: Tertulia Biral, ostiraletan 17:10etatik 18:00rek arte zuzenien ibiltzen naz Maider Seguro, Xabi Larrazabal, Ander Goenaga eta Alexander Padilakin batera.

**- Zelan hasi ziñen esatari moduen?**

Udan irakasle baten dei bat jaso neban esanez Euskadi Irratian jende gazte eta zeresana eduki ahal dabena bile ebizela programa barri baterako. Baiezkie emon notzen, noski! Aukerak ez die etortzen sarri norberan atie jotera. Harro nao, eta laudorio moduen hartu dot irakasliek nigan pentsau izena.

**- Zer da bertan eitten dozuena?**

Izenak berak esaten dabena moduen biraltasunari buruz eitten dogu berba: internet sarien birus bat lez zabalitzen dan multimedia artxibo oroz. Normalien bideo laburrek izeten die; espero ez dan gauza bat pasatzen dan bideo bat... Askotan, detalle famatu batek laguntzen dau bideo bat biralizatzen, doinu batek, kanta batek, mugimendu batek... Horretaz aparte, sare sozialetako mugimenduei buruz be egitten dogu berba, bideojokoen munduen pasatzen dien aldaketei buruz... Eta gero horrekin harremandu ahal dan edozein gairi buruz. Bikoizketei buruz egin dogu berba, irratinobelez, sare sozialetako perfileko argazkiez, aplikazio berriez...

**- Zelako girue dekozue?**

Giro politte daukegu, ni behintzet oso gustora nao. Astiro-astiro konfiantza irabazten goiez eta saltseatzen. Gainera, giro informala da saieuk



bilatzen dabena, naturaltasune, ostiral arratsaldie pasatzeko giro apropos bat, eta hori da gu emoten saiatzen garena. Lortzen dogun ala ez entzulie galdetu biherko deutsegu.

**- Jendiek zer esaten dotzu?**

Mallabiko neskek sue emon zotzien Whatsappeko taldeak lehenengo saien. Asko eskertu neban, urduri egon nintzen-eta. Lagunek ahalik eta gehixenetan entzuten saiatzen die eta ilusiñue egitten deuste. Amamak be entzuten nau, ezer ulertzen ez dabena arren... Ta gero, ama; ni baino urdurixau ipintzen dala saio bakotxan aurretik! Amak ataritzen deustez failuek... Hori da bere lana, ezta? Zuzendu, hobetzeko. Gora amak!

**- Zelan entzuten dozu zure burue?**

Egixe esan, onartu bidot ez dotela sekule nire abotsa entzun! Ez naz atrebidu edo eztakit... Auskalo zelako

abotsa dauketen... eta seguru neure buruai akats asko aterako neukioxela: hau beste modu batera esan biher zendun, hemen ez dakit zer gehitu biher zendun, hemen astirua berba egin...

**- Zelan baloratzen dozu esperientzia?**

Irratixan mundue betidanik gustau jata, mundu politte beittantzen jata. Badauke bere xarma, ez dakit. Esperientzia honetatik asko ikasten nabil; lotsak kendu ta mikrofono batetik lasai berba egin, eroso sentidu... Apurke-apurke banabil lortzen. Hone-taz gain, gaitasun aldetik ez ezik, eduki aldetik be asko nabil ikasten. Ez nuke sekula esperientzia hau aldatuko, ostiralak heltzeko irrika bikoitza dauket oin! Etorrizunien irraxen lan egittie gustauko jatan, gainera oin, jentie eza gutzen dodala eta lan egittieko modue be bai.

**Ferreteria/Burdindegi**

- \* Burdindegia
- \* Tresneria
- \* Sarrailagintza
- \* Giltzak / Aginte automatikoak
- \* Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- \* Opari artikuluak

**ANBOTO**

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer\_anboto@hotmail.com  
www.ferreteriaanboto.es

**MALLABIKO Herriko taberna**

Eguneko platera (3€), menua bokatak, plater kombinatuak, pintxoak, kazolak, arraina eta txuleta parrillan (enkarguz)...

**EUSKAL PRESO ETA IHESLARIA**

**ETXERA**

**943 174 952**  
(asteartetan itxita)



## TRIKITILARIXEK IZAR GORRIREN ESKUTIK

Azaro amaieran hasi eta abendu ziherrak ekintza desberdinek antolatu dauz Izar Gorri elkartiek. Azaruan 23en, Santa Zetiliako kontzertuek eta Gaztañerrek batera, gabeko 11:30etatik aurrera, trikitilari- xek izengo die Herriko tabernan. Horrez gain, aurreko urtietan moduen, presuen inguruko hitzaldi bat egittie aurrekusten dabe abendurako; egun eta ordue aurreraua zehaztuko dabez.



## ASTO PROBAK ABENDUEN

Abenduan 6, 7 eta 8xen asto probak izengo die urtero lez Mallabiko proba lekuen. Bariku eta zapatu iluntzixen jokatu- ko die, eta domeka arratsaldien ziurrenik. Ikusleentzat sarrerak 10-12 euro bittartekuek izengo die. Eta parte har- tzen daben probalarixen artien ondorengo sarixek jokatu- ko die: 1. sarixe: 390€, manta, txapela eta garaikurre; 2. sarixe: 330€ eta garaikurre; 3. sarixe: 270€ eta garaikurre; 4. sarixe: 250€; 5. sarixe: 230€; 6. sarixe: 210€; 7. sarixe: 190€; 8. sarixe: 180€; 9. sarixe: 170€ eta 10. sarixe: 160€.

## TOPONIMIA AURKEZPENEA EUSKARAREN EGUNEN

Abenduan 3en, euskararen egunien, mapa toponimikuan aurkezpena egingo da arratsaldeko 6:00etan Kultur etxien. Bertan, duela bi urte hasitako lanaren emaitza esku artien izengo dogu eta Pello Mugartza eta Justo Azagirre egiliek zelan lortu daben hainbeste leku-izen biltzie kontauko deuskue. Bertan izengo die, baita be, Felix Mugarutza mapa toponimikue egitiez arduratu den Dunba enpresakue eta Mikel Gorrotxategi, Euskaltzaindikio kidie, leku izenen idatzizko forma ofiziala zehazten lagundu dauena.

## MALLABITTARRAK PALA TXAPELKETAN

Munduko Pilota Batzarrak antolatutako Nesken Gomazko Paleta lehiaketa jokatu dabe Itsaso Pradera eta Amaia Araiztegi mallabitarrek. Azaruan 3en hasi zan txapelketie, eta nazioarteko zazpi bikotek parte hartu dabe. Amaiak M. Agirre amurriorarrakin jokatu zittuen kanporaketako parti- duek, baina ez eban lehiaketa aurrera egitterik lortu. Itsasok, Garcia argentina- rrrakin jokatu eban eta finalera heldu eta irabaz- tie be lortu eban. Beraz, zorionak Itsaso txapeldu- nari!



## ERAKUNDE ADIERAZPENEA ADOSTU DABE UDALIEN

Azaruan 25a 'Emakumeen kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna' dala-ta, Mallabiko Udali- en, Bilduk eta EAJ-PNVk Erakunde adierazpena adostu dabe. Adierazpen horren arabera, alor horretan biherrezkue da politikari eta herritarren adostasunien eta konpromisuen sakontzie, eta hortik abiatute, batera bizitzeko guniek sortzie, nun emakumiek, indarkeria matxistatik aske bizitzeko aukera izen- go daben. Adierazpen horrekin hartu dabezen konpromi- suen artien, berdintasun-politikak garatzeko baliabidiek urtetik urtera indartzie edo-ta parte-hartzien oinarrituteko prozesuek martxan jartzie edo bultzatzen jarraitzie dagoz, bestiek beste.

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre



Askotan, **konponketa** erantzun egokiena da



**AUTO-REPARACIONES AREITIO, S.L.**

634 errepide nazionala - 69,5 km.a Areitio Gaina 15 · 48269 - Mallabia  
Bulegoa: 943 17 51 00 / Tailerra: 943 17 08 06 / Fax: 943 17 20 15  
www.areitiomotor.com

administracion@areitiomotor.com / areitiomotor@areitiomotor.com



**Udal Euskaltegia**

Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925  
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

**GOIENKALE Z/G  
ERMUA**  
Tel. 943 030 112

**MERKATU PLAZA 7  
ARRASATE**  
Tel. 943 770 598

**KALERATZEEN KONTRAKO HITZALDIA LOBIANON**

Debabarreneko 'Stop Desahucios' plataformak eta Ermuko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako arduradunek hitzaldia egingo dute Lobianon azaroaren 26an, 18:30ean. Udaleko arduradunek Ermuko egoera azalduko dute eta plataformako kideak, aldiz, eskualdeko errealitateaz arituko dira.

**MOZIOA AURKEZTU DU ALTERMUATIBAK UDALAN**

Fracking-a martxan ipintzearen kontrako mozioa aurkeztu du Altermuatiba taldeak Ermuko Udalean. Mozioa onartua izan den arren, taldekideek ez dakite oraindik gaia azaroko udalbatzarrean landuko den. Fracking-a edo haustura hidraulikoa, gas naturala erauzteko prozesua da.

**ELKARTASUN DESFILEA EGINGO DUTE EMOEKO KIDEEK**

Azaroaren 22an, ostirala, elkartasun desfilea burutuko da 21:00etan Ermua Antzokian. Horri esker, herriko dende dituzten arropa, osagarri eta joeren berri jasoko dute herritarrek. Desfilea ikusi ahal izateko 2 euroko sarrera ordaindu beharko da (egunean bertan erosita edo alde zurretik herriko hainbat saltokietan), eta jasotako dirua elkartasun proiektuetara bideratuko da. Bertaratzen diren guztien artean, 100 euroko 3 erosketa-txeke zozketatuko ditu Ermuko Merkatarari eta Ostalariei Elkarteak.

**Ekimen ugari burutuko dira Euskararen Egunean**

Euskal Birusak, Antxixiketan aisialdi taldeak, Ermuko Udaleko Euskara Sailak eta herriko ikastetxeek hainbat ekitaldi antolatatu dituzte abenduaren 3rako, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko, alegia. Goizean, DBHko 3. eta 4. mailako ikasleak eta Uni Eibar-Ermuko ikasle guztiak Mikel Markez eta Eñaut Elorrietarekin bilduko dira Ermua Antzokian. Musikari hauek 'Baga, Biga, Higa' euskarazko musikari buruzko emanaldia eskainiko dute bertan, Udaleko Euskara Sailak lagunduta. Antzokian ere, baina 14:30ean, karaokea, kirola, musika, sari-banaketa, ikus-entzunezkoak eta sorpresak egongo dira herriko umeentzat. 16:30ean, Antxixiketan taldeak umeentzako jolasak egingo ditu plazan eta jarraian, Euskal Birusa Elkarteak 200 sagar inguru banatuko ditu plazan. 'Euskara Ahora' kanpainaren baitan dagoen ekimen horren helburua euskararen erabilera sustatu eta honen presentzia egunerokotasunean bermatzea da.

**200 lagunek hartu dute parte Mugarriz Mugarri ibilbidean**

Artarra Mendi Taldeak aditza eman duenez, ia 200 lagunek hartu dute parte aurtengo Mugarriz Mugarri ekitaldian. Adin guztietako lagunak bildu ziren Ermuko lurralde mugak zeharkatzeko eta "goiz zoragarria pasatzeko". Azaroaren 23an, Nafarroako Malerrekatik Bortzirira joateko gonbitea egin die Artarra MT-k bazkideei eta hilaren 30ean, berriz, Errioxako 'La Población' gailurrera igo eta upeltegi batean bazkaltzeko proposamena zabaldu du.

**Gabonetako mahai apaingarrien II. Lehiaketa martxan**

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duten ermuarrek Lobianora eraman beharko dituzte euren lanak, abenduaren 16 edo 17an. Ermuko Minbiziaren Aurkako taldeak antolatutako lehiaketa honetan, gehienez bi mahai apaingarri aurkeztu ahal izango dira pertsonako, eta hauek osatzeko, ezin izango dira 12 euro baino gehiago gastatu. Hilaren 18an, epaimahaiaren erabakia jakin eta hurrengo egunean sari banaketa burutuko da. Hiru egunez, aurkeztutako lan guztiekin erakusketa egingo dute eta jabeek, euren lanak eman ahal dituzte, elkarteak salgai ipintzeko. Jasotako dirua minbiziaren ikerketarako bideratuko da. Iaz 75 lan aurkeztu ziren eta horietatik 65 saldu ziren, 12 eurotan. Honi esker, 780 euro batu zituen elkarte horrek.



**KRABI**  
Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56      Diputazio, 5      ERMUA

**J. LUCAS**  
PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36



# XXIV. San Martin Azoka



Argazkiak: Leire Elustondo, Xabier Ciarsolo eta Dorleta Vidal.

eskerrik asko denori! • eskerrik asko denori! • eskerrik asko denori! • eskerrik asko denori!

**Talogintza:** Juanita Aspiazu/ Maritxu Etxebarria/ Mari Paz Araiztegi/ Mari Nieves Arregi/ Tina Perrino/ Mari Karmen Urkidi/ Lurdes Arrizabalaga/ Carmen Telleria/ Marijose Goigogana/ Maddi Goikoetxea/ Gloria Mallea/ Begoña Aginaga/ Miren Astarloa/ Maite Areitioartena/ M<sup>o</sup> Asun Aranburu/ Maite Alzola/ Lutxi Alegria/ Maitasun Idigoras/ Irune Aranberria/ Karmele Astarloa/ Irene Oneca/ Leire Martin/ Maitane Millán/ Iratxe Arrizabalaga/ Maite Yarza/ Idurre Zuazua/ Nerea Redondo/ Hiari Redondo/ Naiara Gallastegi/ Oihane Vega/ Eider Gisasola/ Maria Ormaetxea/ Odile Guirado/ Idoia Hernández/ Arantza Cañamares/ Gurutze Txurruka/ Esther Aldalur/ Libe Elizondo/ Naraa Mateos

**Muntaia/ desmuntaia:** Josu Garitagoitia/ Juanjo Solozabal/ Endika Fernández/ Aitor Arriaga/ Ander Yarza/ Fernando Aranberri/ Jose Santos/ Bea Narbaiza/ Koldo Aranberria/ Jose Carlos Ibaibarriaga/ Asier Mandiola/ Aitor Ogiza/ Olatz Gil/ Nahikari Benito/ Irune Yarza/ Mikel Zatika/ Maite Hormaetxea/ Maialen Gómez/ Ekaitz Amezua/ Aitor Garitagoitia/ Ander Goitandia/ Mikel Urkiola/ Oier Juez/ Ainara Gorritxategi/ Nora Mateos/ Tamara Llorente/ Ines Arano/ Aitzol Lejardi

**Ticketak/ Errifak:** Idoia Narbaiza/ Mila Uranga/ Lara Alonso/ Edurne Madariaga/ Dani Domínguez/ Roberto Bilbao/ Marga Pérez/ Juantxo Díez/ Pello Díez/ Aroa Fernada/ Leire Rodríguez/ Montse González/ Oihane Luengo/ Ermuko Merkatarí eta Ostalaríen Elkarte

**Saiheskia:** José Antonio Lejardi/ Juan Ramón Areitioartena/ Manuel González/ Jesús Gómez/ Mariano Casado/ Alex Idigoras/ Adei Fernández/ Gorka Alzaa/ Unai Ziarsolo/ Lorea Txapartegi/ Aroia Lejardi/ Jokin Txapartegi/ Aintzane Plaza/ Egoitz Gerrikabeitia/ Oier Egaña/ Iñaki Bildosola/ Oier Araiztegi

**Txikurixak:** Arantxi Perosanz/ José Antonio Martínez Carbajo/ Oskar Morales/ Julen Berriozabal/ Antxon Ziarsolo/ Alberto Belar/ Germán Pérez/ Roge Bouzo/ Andoni Esmeralda/ Miguel Fernández/ David Elejalde/ Jabi Gorritxategi/ Eli Areitioartena/ Juanjo Gorritxategi/ Xabi Ithurriagoitia/ Edu Izarra/ Ander Idigoras/ Olatz Uriarte/ Ane Odriozola/ Oihane Vega/ Beñat Redondo/ Unai Rodríguez/ Josu Gómez/ Hiari Redondo/ Maria Ormaetxea/ Nerea Redondo/ Iratxe Odriozola/ Eider Gisasola/ Clemen Corredera/ Mireia Arginzoniz/ Rosa Bañuelos/ Begoña Fernández/ Iñaki Delgado/ Cristina Palacios/ Rosa Baltar

**Buruko zapiak:** Mari Karmen Urkidi/ Maite Areitioartena

**Babajana:** Beti Berdin txaranga

**Aurreko/ondorengo egunetan:** Juan Antonio Izagirre/ Izagirre sendia/ Lucia Aldalur/ Mari Feli Manzidor/ Felitxo Araiztegi/ Juan Fernández/ Ramón Redondo/ Aitzol Redondo/ Jone Redondo/ Goizargi Amesti/ Jon Telleria

**Udalak/erakundeak:** Ermuko Udala/ Mallabiko Udala/ Eibarko Udala/ Zaldibarko Udala/ Kutxabank/ Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila

**Epaimahaia:** José Luis Clemente/ Nagore Espilla/ Ainhoa Cid/ Esther Astarloa/ Laura Cruz/ Estitxu Sáenz de Zaitegi

**Bestelakoak:** Jon Larrañaga/ Alain Landaarroitajuregi/ San Antonio Okindegia/ Iñigo Pro/ Alain Benito/ Eskilarapeko/ Anboto Burdindegia/ Anittu-goiko baserría/ Miguel Angel Mugerza/ Eitzaga-Barrenengoa baserría eta bertako 'Bartolo' astoa/ Angel Uriarte/ Aitzol Uriarte/ Etxakua-goiko baserría

**Erakusleihu lehiaketa:** Iraner Altzairudenda/ Senen eta Yonari Bitxitegiak/ Anboto eta Urreta Burdindegia/ Elenco eta Arrieta Elektrogailudendak/ Solozabal Estankoa/ Mari Fruitadenda/ Gozo-toki, Villa de Ermua eta Txutxerías Gozodendak/ Miguel Harategia/ Dotek Igeltseritza/ Marfil, Trucco's eta Paris Ileapaindegia/ Cocoliso, Vintage, Sferico, Quetzal, Ramos, Peke's, Nane, Idoia, Garot@s eta Ikema Jantxidendak/ El gusto es mio eta Mayte Jatekodendak/ Gauzak Kinkiladenda/ Etxedreams Koltxoidenda/ Eguzkilore eta Mariasun Loradendak/ El Baúl eta Procolor Margodenda/ Alboka Musika Eskola/ Marina Oihaldenda/ Orbe Pertsianak/ Sagardui Poltsadenda/ Arinka eta Zapatziki Oinetakodendak/ Artarrai Oparidenda/ Simón eta Beer Station Tabernak/ Elkartasun Tonbola

**Taldeak:** Euskal Birusa Elkarte/ Lobiano Gastronomía Elkarte/ Kaltxango AEK Euskaltegia/ Alboka Musika Eskola/ Txindurri Txistu eta Dantza Taldea/ Merkatu Plaza/ Abeletxe Nagusien Egoitza/ Ermuko Merkatarí eta Ostalaríen Elkarte/ Txalaparta Elkarte

**Etxekoak:** Joseinas Larrañaga/ Nagore Espilla/ Rosa Jaussi/ Gaizka Areitioartena/ Marines Txurruka/ Alicia Lorenzo/ Estibalitz González/ Asier Ibaibarriaga/ Manuel Moreno/ Eli Txurruka/ Tere Uriarte/ Nerea Berriozabal/ Alazne Aiestaran/ Nerea Izarra/ Piedi Ezaguirre/ Ane Sáenz/ Dorleta Vidal/ Igone Amesti/ Amaia Arriaga

**ESKERRIK ASKO EUSKAL BIRUSEKO BAZKIDEEI,  
AHAZTEN ZAIGUN BATEN BATI  
ETA OROKORREAN ERMUKO HERRIARI!**

• san martin azoka • abereak • erronomia •

• txerria • epaimahaia • postuak • talogileak •



**babajana • umeentzako jolasak • dantzariak**

**abere erakusketa • jantzi lehiaketa • iantzi lehiaketa • artisauak • astobusa • jol**



**SAN MARTIN AZOKAKO SARIAK**

Aurtengo epaimahaian honako hauek izan dira: Bizkaiko Erlezain Elkarteko Jose Benito Beobide, Idiazabal gaztako teknikaria den Bittor Rodríguez, Nagore Espilla herriko ordezkari bezala, Ermuko Udaleko zinegotzia den José Luis Clemente eta Asier Ibaibarriaga Euskal Birusaren izenean. Euren erabakia:

**FRUTA ETA ORTUARIAK**

- 1. saria: Maria Pilar Mallabia, Agarre baserria (Mallabia).
- 2. saria: Mila Amillategi, Barrenetxe baserria (Mallabia).

**GAZTA**

- 1. saria: Andoni Padilla, Mekoleta auzoa (Otxandio).
- 2. saria: Patxi Baskaran (Markina).

**OGIA**

- 1. saria: Luis Mari Osa (Mallabia).

**EZTIA**

Milalore eztia: Valentin LLona (Urikoa-Zornotza).

**SAGARDOA**

Jose Antonio Bilbao, Axpe baserria (Markina).

**TXAKOLINA**

Andoni Ojanguren (Lezama).

**AIPAMEN BEREZIA**

Miren Intxaurreaga, Errotabarri baserria (Berriz).



**TXERRIAREN ERRIFAREN ZENBAKIAK**

- 1. saria: Txerria edo 400 euro: 0378.  
Irabazlea: Fede Prieto.
- 2. saria: Landetxe batean asteburu pasa: 2875.  
Irabazlea: Ertz taberna.




**BASERRITAR JANTZIEN LEHIAKETA**

Neska: Igone Amesti.  
Mutila: Aritz Gerrickabeitia.  
Saria: Bi lagunentzako afari bana.  
Gaizka Areitioaurtenak, Esti txu Sáenz de Zaitegik eta Laura Cruzek osatu dute aurten epaimahaia.



**ERAKUSLEIHO LEHIAKETA**

45 dendari aurkeztu dira aurten San Martineko erakusleaho lehiaketara eta Alboka Musika Eskolak eskuratu du lehen saria. Epaimahaiaren arabera, *“beraien gaia -musika eta musika-tresnak- azokan zoragarri txertatu dute, konposizioari iluminazio egokia emanez eta ondo girotuz”*. Bigarren saria Mariasun loradendak jaso du, *“konposizioa dela, kolorea edo gaia dela egoki aurkeztu dute, konjuntioari ukitu artistiko eta deigarria emanez”*. Honakoek osatu dute epaimahaia: Esther Astarloa eta Ainhua Cid, biak Arte Ederretan lizentziatuak, eta baita Estibalitz González (dendari ohia).



**ONTINDIA HARATEGIA**

Etxean egindako odoloste eta txorizoak



Kantabria zeharbidea 1 Tel. 943 10 85 44  
48260 - ERMUA Mug. 678 64 85 41

**ZUTIK PIZZERIA**

Artisau-pizzak

Etxeko razio eta postreak

943 17 67 74

## Nagore Espilla izan da herriko ordezkaria XXIV. San Martin azokan



Euskal Birusa Elkar-  
teko zuzendaritza ki-  
de den Nagore Espilla  
izan da herriko or-  
dezkaria aurtengo  
San Martin azokako  
epaimahaian. Lana  
bukatutakoan, bizi  
izandako esperien-  
tzia baloratu zuen  
Nagorek:

### - Zeintzuk lan egin behar izan dituzu epaimahaian?

Lehenengo eta behin, fruta eta ortuari postuak ikustera joan: ea etiketak eta prezioak zituzten, generoaren kalitatea eta aniztasunari erreparatu eta apainketa baloratu. Ondoren, mahaian, gaztak dastatu eta baloratu ditugu. Idiazabalgo ordezkariak zertaz ohartu behar dugun azaldu digu: kanpoko itxura, kolorea eta forma, oihal markarik duen edo ez, seilua-  
ren ingurua... Gero erditik moztu eta barruko uniformetasuna puntuatu digu. Ondoren usaina hartu eta dastatu. Jarraian ez-  
tia baloratu digu: etiketa duen ala ez, urtea, kolorea, bitsa, usaina, zaporea eta hezetasuna neurtu ditugu. Ondoren sagar-  
doa, txakolina eta ogia.

### - Esperientzia positiboa izan da?

Bai, solasaldi atseginean aritu gara eta epaimahaiak pro-  
duktuak nola baloratzen dituen ikasi dut.

### - Gauza berriak ikasteko aukera izan duzu?

Bai; adibidez, gazta fuerte on bat egitea zailagoa dela gaz-  
ta suabe on bat egitea baino. Oihal markak izatea positiboki  
baloratzen dela eta Idiazabal gaztak porotasun txiki bat izaten  
badu, bikaina dela. Eztiaren arloan, zenbat eta hezetasun eta  
bits gutxiago izan, hobea dela.

## Eñaut Elorrietak kontzertua eskainiko du azaroaren 29an, Antzokian, 22:15ean




## Leire Fernándezek irabazi du Kaltxango AEK-k San Martin azokan zozketatzen duen otzara



## 120 lagun bildu zen San Martineko azoka eguneko babajanean

Beti Berdin txarangak aintzina egiten zen babajanaren antolaketari ekin dio aurten. Azoka egunean, 120 lagun bildu zen Merkatu Plazan babak jan eta giro ederraz gozatzeko. 'Beti Berdin'ekoek primeran burutu zituzten antolaketak lanak eta datorren urtean ere, horiei eusteko asmoa dute.

## Anaitasuna Ikastolak San Martin Azokako II. Argazki Lehiaketa burutu du



Ikastolako irakasleek 5 eta 6.mailako ikasleei zuzendutako argazki lehiaketa antolatu dute bigarren bez. Azokako txerria, azokako abereak eta baserriarren postuak gaitzat hartuta, ikasleek 3 argazki aurkeztu behar zituzten. Guztira 109 aurkeztu dira eta irabazleak honako hauek izan dira: Alain Rubio, abereen argazkirik onena; Oihana Palacio, baserriarren postuen argazkirik onena eta Ekain Duque, txerriaren argazkirik onena.



"Ikasleei azoka bera ezagutaraztea eta giro euskalduna duen azoka horretan euskaraz mintzatzea" du helburu lehiaketak.

## Giro ederra sortu zen Gaztañerre egunean

Kaltxango AEK Euskaltegiak eta Berbalagunek antolatzen duten Gaztañerre egunean 40 lagunek hartu dute parte aurten. San Martin azokako ajeak igarotzeko, Erretena elkartean bildu eta elkarrekin afaldu zuten euskara ikasle, irakasle, Berbalagun eta Euskal Biruseko kideek. Gaztaina erreak jan eta abestuz eman zioten amaiera egunari.

**zapatullas**

www.zapatullas.com "Eskuz margotuak"

Gainera: etxeko zapatilak, poltsak, Disney produktuak, osagarriak...

San Inazio 2. behea - ERMUA - 669731867 - zapatullas@gmail.com

**Arinka**  
zapata-denda

Umeak  
Gazteak  
Emakumeak

- Jose Saenz
- Primigi
- Timberland
- Geox
- Gorila
- Converse...

VI Centenario 17 - Ermua  
943 17 41 26

# EUSKARAK 365 EGUN

365 egun bizitzeko, aldarrikatzeko,  
plazaratzeko, izateko, ospatzeko.

Abenduaren 3a hurbil dugu, 1949an Eusko Ikaskuntzaren ekimenez sortutako Euskararen nazioarteko eguna. Eta abenduaren 3a ere bizitzeko, aldarrikatzeko, plazaratzeko, ospatzeko eguna izango da euskaltzaleontzako.

Urte osoan zehar euskaraz bizi nahi dugunontzat eta euskaltzale garen guztiontzat egun garrantzitsua da abenduaren 3a, geurea delako. Baina hurrengo egunak, asteak eta hilabeteak ere garrantzitsuak direla ez dugu ahazten, horiek ere geure-geureak ditugulako.

Euskaltzaleak biltzen hasi ginela urte asko joan dira jadanik eta herriz herri antolatuta gauden euskaltzaleok badakigu urte osoko ahaleginak ematen dituela bere fruituak. Euskarazko kulturgintza gozatzeko guneak sortu ditugu; euskaldunontzako harreman sareak ehuntzen dihardugu; sortu ditugun herri aldizkari eta hedabide ugariei esker euskarazko informazio iturri hurbilak ditugu; aisialdi taldeen bidez haur eta gazteek aisialdia euskaraz gozatzeko guneak ditugu; era guztietako entitate eta erakundeetan euskaraz aritzeko eragile lana egiten dugu, eta herriko euskal hiztunon komunitatea martxan jartzen dugu.

Euskaraz bizitzeko baldintzak sortu nahi ditugu eta horretarako euskaltzaleon ekarpena behar beharrezkoa da: espazioak sortzen eta geureganatzen, harreman sareak ehuntzen, ardurak eskatzen eta hartzen, botere guneetan eta inguru hurbilenetan eragiten. Euskaldun bizi gara eta euskaltzale gara urte osoan eta hori aldarrikatu nahi dugu, 365 egunetan.

Euskararen egunak kalean bizitzeko gonbitea da hau,  
euskarak eta euskaldunok kalea hartzeko gonbitea.

Urte osoa euskararen egun bihurtzeko eta aldarrikatzeko deia da hau,  
plaza euskaraz betetzeko deia. Biltzeko eta eragiteko proposamena da hau,  
geu izateko euskararen herrian.

*Pub Dakota*



Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com

**T** XALAPARTA  
ABERNA

Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13  
(Ermua) **ENKARGYAK**  
943 030 299




Zubiaurre 14  
Telef. 943 17 28 88  
48260 ERMUA

**EGUZKI LORE**



**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2  
Tel. 943 17 66 34  
Tel. mugikorra 630 01 13 41  
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60  
48260 ERMUA (Bizkaia)



# EUSKARAK

# 365

# EGUN

noiznahi, nonahi  
orain, hemen

Euskal  
Birusa  
Elkartea



euskaltzaleen  
topagunea

[365egun.eu](http://365egun.eu)

**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOA**  
 Erdikokale 1, 1. A  
 48260 Ermua  
 © 943 17 47 44

**Irale**  
 hortz klinika  
**Leire Irazu Garitaonandia**

- Ortodontzia
- Aho zirujia
- Pedriodontzia
- Inplanteak
- Odontologia orokorra

Zeharkale 8, behea 943 17 71 34  
 www.irale.com

**Yoga eskola**  
 Arnasketa eta ariketa fisiko egokiak  
 Erlaxazioa eta meditazioa  
 Osteopatia eta bertebrologia  
 Anginak sendatzeko masajea

**Sanatana Dharma**

San Roke 24, behea  
 943 74 85 93  
 685 722131 (Idoia)

**san pelayo**  
 clínica dental hortz klinika

Inplanteak  
 Ortodontzia  
 Periodontzia  
 Hortz -zuriketa / Estetika dentala  
 Odontologia orokorra  
 Protesiak  
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS

San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui  
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

# OSASUN GIDA

**NEREA IÑIGUEZ**  
**HORTZ KLINIKA**

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

Hortz klinika berri eta handitu dugu

San Inazio 4 Tel.: 943 030 512  
 Ermua niklinika@gmail.com

fisioterapia  
 eta osteopatia  
 zentroa  
**aitziber**

Aitziber Fernández  
 Telf. 943 17 60 95  
 629 88 70 89  
 Sexto Centenario 13,behea  
 48260 ERMUA (Bizkaia)

**NATURA**

Cristina García Pérez

- Elikagai biologikoak
- Terapia naturalak
- Naturopatarekin kontsultak
- Masajeak
- Dietistarekin kontsultak
- Kosmetika biologikoa

Belar-denda eta dietetika

Zeharkale 12 behe esk. · ERMUA  
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

**Osasun gidan agertu nahi baduzu,  
 943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com**

Ander González, idazlea:

## “Liburu honek zerbait egiteko gai naizela erakutsi dit”

Poltsikoan darama oparitu berri dioten grabagailua, bat-batean bururatzen zaizkion ideiak ez ahazteko. Orain arte paperean jasotzen zituen horiekin, ‘La ironía del amanecer’ olerki liburua, kontaketa-liburu bat eta poesia bilduma bat idatzi ditu. Egungo erronka: eleberria idaztea.

- “Ahotsa altxatzen ohituta dagoen mundu honetan, olerkigintzaren gozotasun eta edertasuna derrigorrezkoak izan beharko lirarteke”. Esaldi hori irakur daiteke zure liburua-  
ren aipamenean...

Oso liburu introspektiboa da eta munduko biztanle guztiei esango niekeena jaso dut bertan: mesedez, eskerrik asko... 16 urte inguru nituela beste modu batera azaldu ezin nituen kezka azaltzeko asmoarekin hasi nintzen idazten.

- **Argitaletxearekin zer nolako harremana izan duzu?**

Koedizioa deitutako formularen bitartez egin dut lana eurekin. Liburua argitaratu zidaten eta aurkezpenarako 100 ale bidali zizkidaten. Niri zegokidan aurkezpena zein publizitatea


egitea eta aurkezpenean, liburu guztiak saldu nituen: 11 eurotan saldu ziren eta hortik, 1,50 euro irabazten dut nik. Baina berdin dit. Nik nire liburua nahi nuen, nire apalean ikusteko eta nire buruari zerbait egiteko gai naizela erakusteko.

- **Irakurtzea gustatzen zaizu?**

Bai, irakurle sutsua naiz eta klasikoak ditut gustuko: Tolstoi, Dostoyevski, filosofiako liburuak... Ana Kareninak markatu ninduen, esaterako, eta orain Frankenstein berrirakurtzen ari naiz. Egungo literatura, aldiz, gorroto dut.

- **Olerkiak irakurtzen dituzu?**

Neruda eta Bécquer irakurri izan ditut, baina olerkigintzak ez nau sekula erakurri. Horregatik da hain deigarria nik olerki liburua ida-



tzi izana. Egia esan, nik ez nuen ezer egin: olerkiak berez sortu ziren!

- **Zaila ematen du...**

Beharbada musikak bere eragina ere badu. Hip-hop modan zegoenean hasi bainintzen libretatxoarekin ideiak apuntatzen, egunero-ko modukoa zen.

- **Non eros daiteke ‘La ironía del amanecer’?**

Interneteko hainbat webgunetan. Xiripot liburuden-

dan ere salgai egon da eta bertan eskatu daiteke.

- **Zer daukazu orain esku artean?**

Literatur lehiaketa batean parte hartzen ari naiz, nik sortutako beste olerki bildumarekin. Gainera, kontakizun liburua ere prest daukat eta sarrera idazten didatenean, argitaletxera bidaliko dut. Eleberria idatzi nahiko nuke orain, baina ez dut lortzen!

Dorleta Vidal

**Igeltserotza - Iturgintza**

**Errekalde**

Esteban Goikoetxea  
Errekalde baserria, 1  
48260 ERMUA Bizkaia  
Tel: 662 51 42 68  
errekalde.gm@gmail.com

**URRETA** burdindenda

- \* Etxea
- \* Tresneria
- \* Brikolaia
- \* Rielak
- \* Giltzak
- \* Zerrailgintza
- \* Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**Proba-Leku**  
Ileapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

**PUB YOMY**

Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean

Komunitateak

**San Pelayo**

Aholkularitza  
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

# SANTOS VEGA

- Zer egiten zenuen gaztarroan?

Txikitatik argazkigintzan aritu naiz. Tiaren kamerarekin ateratzen nituen argazkiak, 1982an, 20 urterekin, lehen kamara erosi nuen arte.

- Ikasketarik?

Oinarrizko Hezkuntza Orokorra ikasi dut. 1982an, Hirlargiren 3 hilabeteko ikastaroan izan nintzen. Ermuko argazkigintza elkartearen nengoela, asteburuetako hainbat seminarioetan ikasi nuen argazkigintza.

- Noiz hasi zinen lanean?

15 urterekin Eibarko Rocandio enpresan hasi nintzen eta bertan jarraitzen dut egun. Erreleboetan nago: goizez, arratsaldez eta gauetz.

- Zer da zure lanaz gehien estimatzen duzuna?

Lana egia esan gutxi gustatzen zait, premia dudalako joaten naiz. Hori bai, lanera noanean gauzak ondo egiten saiatzen naiz.

- Argazkilaritza artea al da?

Noski!

- Zer da argazkilaritza?

Argazki bat erakutsi, mintzatzeko, espresatzeko gaitasuna edukitzea.

- Zer alde dago garai bateko argazkigintza eta egungoaren artean?

Garai batean, kliska egitearen bitartez kontrolatzen zen kamera, baina ezin zenuen erretratatu nahi zenuen hori ikusi. Argazkiak ateratzen jakitea eta erretratatu nahi zenuen hori argi edukitzea funtsezkoa zen.



**52 urte ditu Santos Vegak. Lau anai-arreben artean, bera erdikoa da. 9 urte zituela, Zamorako Toro herria utzi eta egun euritsu batean etorri zen Ermura. Mari Joserekin ezkondu dago eta duela 21 urte Oihane izeneko alaba izan zuten.**

- Zer erretratatu duzu?

Denetarik. Erretratuak egin ditut, paisaiak, lineak...

- Zenbat argazki egin ditzaitezue?

Udara honetan 700 bat argazki, erreportaje bat egitean 400, eta San Martinetan kamera ateraz gero, 100 baino gehiago. Eta horietatik %10 artxibo gisa sailkatzen dut.

- Gogoko argazkilaririk baduzu?

José María Ribas i Prous eta Vicente Peiró. Eurekin ikastaroan izan naiz.

- Edonor izan daiteke argazkilaria?

Bai, edonork egin ditzake argazkiak, baina argazki onak egitea norberaren kreatibitate gaitasunaren menpe dago.

- Zein aholku emango zenioke hasi berri bati?

Ez desesperatzea eta behin eta berriz saiatzea.

- Profesionalki dedikatzen zara?

Ez, beti izan naiz afizionatua.

- Bizio garestia den arren...

8 kamera reflex, 2 digital eta beste 8 objektibo ditut.

- Zer ematen dizu argazkigintzak?

Lasaitasuna, ongizatea...

- Biziorik?

Sukaldatzea dut gustuko. Sozietateko sukaldaritza da gehien estimatzen dudana, gisatu bat egitean erlojuari erreparatzen ez diodanean.

- Jateko gogokorik?

Saltsak dira nire galbidea.

- Zer txoko bisitatu duzu?

Garai bateko Jugoslavia, Hungaria, Txekoslovakia, Ingalaterra, Mexiko...

- Mendi aipagarririk?

Anboto, behar bada bertan Mari dagoelako.

- Hondartza...

Neguan dut nahiago, bertara paseoa joatea.

- Anekdotarik?

Euria egin zuenez, ilobari elizaren aterpean egin behar izan nizkion albumerako 40 argazkiak. Eskerrak albuma primeran geratu zen!

- Zein da eguneko unerik zorionsuena?

Bazkalordua.

- Zerk urduritzen zaitu?

Ezerk. Oso lasaia naiz.

- Zer da barrea eragiten dizun hori?

Lagun arteko txisteez, 'La que se avecina' seriea...

- Euskara...

Jakin badakit, 5 urte izan nintzen AEK euskaltegian, baina ez naiz euskaraz mintzatzera ausartzen.

- Zer falta da Ermuan?

Ermuak argazkilaria behar ditu, hemen argazkilaria aspaldi hil ziren-eta.

- Berriz jaioko bazina?

Ni neu izango nintzake.

- Bizitzak zer irakatsi dizu?

Bizirauten.

Leire Elustondo

**CITROËN  
AUTOS AMEDI**  
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

**SAGARDUI  
poltsak**  
Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

**EGANA**

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK  
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA  
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

Unai Ruiz, mendizalea:

## “Herrian entzun ezin diren soinuak aditzen dira mendian”

4 urte zituela aitak lehenengoz eraman zuen Urkora baina 9 urte bete arte, ez zuen zaletasuna serio hartu. 29 urte ditu jada eta mendiarekin enamaturik dago. Bere zaletasunari sor dio iaz Galarleiz mendi maratoian hirugarrena izatea.

- **Zenbat aldiz igo duzu Urko mendia?**

1.180 aldiz. Aurten, atzoko goiza aintzat hartuta 214 eta iaz 227 aldiz joan nintzen mendira. Eguraldiak laguntzen badu, iazko marka hobetuko dut.

- **Nola ospatu zenuen 1.000. igoera?**

Otsailaren 27an goizean igo nuen Urko 1.000. aldiz. Eguzkia zegoen arren, gailurra elurturik zegoen. Ez dut sekula horrenbeste elurrik ikusi! Nire lagunak eskiak zeramatzanez, ordu eta erdian burutu genuen lana. Arratsaldean, beste lagun batekin joan nintzen mendira 1.001. igoera egiteko. Gero, pintxo eta zerbeza artean ospatu genuen, tabernan.

- **Zerk ezberdintzen du Urko gainontzeko mendi-tatik?**

Urkoren malda eta igoera portzentajea ikaragarria da! Bertara igotzea kostatu egiten da. Oiz mendiak malda handia du, baina denbora luzeagoan egiten denez, ez da horren gogorra.

- **Zenbat denbora behar duzu gailurra menderatzeko?**

Oinez baldin banoa, 50 minututan egiten dut, eta antxintxinketan igoz gero, 33 minutuko errekorra dut.

- **Txangoak <http://josean-lasendaagradecida.blogspot.com.es/> blogean publikatzen dituzu...**

Duela lau urte, aitak eta biok esku artean genuen proiektua da, baina hori aurrera eramaten jakin ez, eta bertan behera utzi genuen, iaz berriro animatu ginen arte. Aurten Bisaurin (Pirinioak) edo Moncayo-ko (Zaragoza eta Soria artean) esperimentziak kontatu ditugu, sarrera bat eginez, way pointak, hau da, GPS-aren koodenada puntuak jarriz, eta argazkiekin lagunduz.

- **Zer du mendiak harengatik lepoa egiteko?**

Hobby bat baino gehiago da, nire bizitza, nire ihesbidea. Zenbat eta denbora gehiago dedikatu, geroz eta gehiago behar dut.

- **Zer sentitzen duzu mendia garaitzean?**

Urkora lagunekin noanez, eta askotan joaten naizenez, ondo pasatzea bilatzen dut. Baina lehen aldiz mendi bateko gailurrera heltze-



an, nire burua gogobetetzea eta bertako gutunontzia bilatzea dut helburu. Gainera, herrian entzun ezin diren soinuak aditzen dira mendian, eta hori oso lasaigarria da.

- **Mendizale izatea ondo baloratua al dago?**

Bai, hemen geroz eta gehiago baloratzen den kirola da. Espainiako federatu gehien daude Katalunia eta Madrilekin batera.

- **Psikologikoki zein fisikoki prestaturik eta beharrezko segurtasun neurriekin joan behar da mendira. Herritarrak kontzientziaturik al daude?**

Denetarik dago. Egungo teknologia, internet, edo GPS-ari (Kokapen Sistema Globala) esker informaturik daude. Ardura gabe jokatu

dut nik ere noizbait mendizale askok bezala, eta gailurra hor dagoen arren, buelta ematen ikasi dut.

- **Idolorik bai?**

Noski! Inurrategi anaiak, Eurne Pasaban edo Kilian Jornet katalana.

- **Etokizunean zer?**

Mendiari lotuta jarraitzea espero dut, toki berriak ezagutzuz, eta erronka berriei aurre eginez. Hiru Handiak egitea gustatuko litzaidake, hori 100km-ko proba bat da EAeko mendirik garaienak igotzean datza: Gorbeia, Anboto eta Aizkorri, alegia. Ekainean ospatzen den lehiaketa honetarako, udaberrian entrenatzen hasiko naiz, lurra lehor dagoenean eta tenperatura altuagoak daudenean.

Leire Elustondo

**Pub SCORPIO**



Zubiaurre, 21  
ERMUA

**OUTUMURO**  
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak  
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

## Osasun sistema publikoaren alde


**H**itz hauek musikarekin irakurtzeko hitzak izango dira oraingo honetan. Juan Luis Guerraren, "El Niagara en bicicleta". Nekatua nago krisiaren gaiarekin, oso. Goizetan, eguerditan, bazkalostean, arratsaldean, gauean... Momentu oro ekonomia, burtsa... Eta are nekatuago nago aditu berriekin: ekonomia inguruan tesia egin ahal izango lukete, baina ez dakite ordea, errenta aitortpena egiten eta sistema pribatuaren aldarrikapena egiten digute.

Azkeneko asteetan, zoritxarrez, telebista dezente ikusi dut, eta iragarki mota berri batzuk ikusi izan ditut: osasun aseguru pribatuak kontratatzeko iragarki mordo dago eta telebistan badaude, jendeak halako produktuak erosi

nahi dituelako da. Gure osasun sistema publiko osoa kolokan dago. Hasi gara, baina ezin dugu utzi enpresa pribatua osasunean sartzen. Gero Estatu Batuak kritikatzeko ditugu... Inoren bartzak ikusi eta norberaren zorriak ez!

Askotan, guk geuk jartzen dizkiogu elkarri oztupoak, hala ikusten dut aseguru pribatuekin. Ez da zentzuzkoa daukagun osasun sistema publikoarekin pribatura jotzea. Norabide aldaketa honek gobernuari arrazoia ematen dio eta privatizazioari eskubide eta botere ematen dio. Inork ez badie pareta jartzen, aurrera joko dute...

Bakarka ezer gutxi egin dezakegu. Bakar batek ezin du erreboluzio bat egin baina bai, ordea, hasi.



*Ioritz Rasero*

Momentuz egin ahal duguna da aseguru ez kontratatzea. Jarrai dezagun gure sistema publikoarekin. Gure aitona-amonek eta gurasoek borrokatu zuten eskubideen alde jo behar dugu. Galtzen baditugu, gaurko gizartearen indarra ikusita, ez ditugu bueltan izango eta.

*"No me digan  
que los médicos se fueron.  
No me digan  
que no tienen anestesia.  
No me digan  
que el alcohol se lo bebieron"*

**Gaurko gizartearen indarra  
ikusita, galdutako eskubideak  
ez ditugu bueltan izango**



**FOTOKOPIAK  
KOLOREZKO FOTOKOPIAK  
HANDIPENAK - TXIKIPENAK  
PLANOAK - AZALEZTAPENAK  
FAX PUBLIKOA  
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es



**ILEAPAINDEGIA**  
*Izaskun*

Goienkale, 9 (Plaza San Martín)  
48260 Ermua Bizkaia  
Tel. 943.17 66 90

**ILEAPAINDEGIA**

**solozabal  
tabakoak**

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33




**D. ARRAL 97 S.L.**  
Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892  
arral@arral97.com  
www.arral97.com

**Ardo banatzailea:**  
Luis Cañas  
Cantosán Verdejo  
Viña 65 Verdejo  
Amaren  
Añada Real  
Cava Oriol Rosell  
Nitida  
Montepinos

**LAN BILA**

Mutil arduratsuak bere burua eskaintzen du edozein lan egiteko: etxeko lanak, tailerrak, banaketak, gidari lanak... © 631429711. Andrés.

**ALOKAIRUA**

Etxea alokatzen da, Iparragirre kalean, 1. peora, 1. eskuma. 2 logela, trastelekua, egongela, sukalde eta komuna. Berriztuta eta jantzita. © 615706548.



**Azaroaren 9an**  
Zorionak Markel!!  
Ondo pasa zure 4. urtebetetzean. Musu handi bat etxekoan partez. Maite zaitugu!



**Azaroaren 8an**  
Zorionak Danel!!  
Gure mutil handiak 10 urte bete ditu. Muxu handi bat familia guztiaren partez.



**Abenduaren 3an**  
Zorionak Markel zure 5. urtebetetzean. Muxu handi bat zure familiaren partez.



**Abenduaren 19an**  
Zorionak Malen!!!  
18 musu handi denon partez eta ondo pasatu. Nerea, Jone, Aitzol eta etxekoan partez.



**Abenduaren 2an amama Miren eta abenduaren 8an Ibai**  
Zorionak eta patxo handi bat etxekoan partez!



**Martzel eta Maria**, ez zarete makalak! Azaroak 3an ospatu duzue zuen 63. ezkon-urteurrena. Zorionak etxeko danen partez!



**Abenduaren 4an**  
Zorionak Aitzol!!!!  
5 musu hadi Jone eta etxeko guztien partez. Aupa txapeldun!!!!



**Azaroaren 5ean**  
Zorionak Naia zure 5. urtebetetzean. Ondo pasa eta patxo handi bat etxekoan partez.



Aurten 50 urte betetzen dituztenen eskola eta Lehen Jaunartze argazkien bilduma egiten ari dira Ermuan.

Material horrekin CD bat egiteko asmoa dute, berriro baten direnean elkarrekin ikusteko. Argazkiak 'Quetzal' arropadendan jasotzen ari dira eta, eskaneatu ostean, pare bat egunetara itzultzen dizkiote jabeari.



Titanic tabernak Zilarrezko Zotza lortu du XVI. Bilbo-Bizkaiako Pintxo Txapelketan. Kategoria librean lortu du saria, 'Udazkeneko Lurrinak' pintxoarekin. Aurten 73 taberna ezberdinetako 116 pintxok hartu dute parte lehiaketan.

Hurrengo zenbakirako azken eguna:  
**ABENDUAREN 11**

hamburguesería  
**TITANIK**

*Pintxo dastaketa poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

**MUGA** **KIROLAK**

San Pelaio 4A behea  
Telefona: 17 64 77  
ERMUA

optika  
**ITZE**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

**ARRIETA CORDEVI**

Elektrotresnak, telebistak, bideoak, musika aparatuak...  
...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

**OSASUNA • ESTETIKA EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apaindegi bat baino gehiago!!*

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

**Montis DQ Mouth**

## MALLABIA 1970

Argazki hau 1970 edo 1971ko ekainean aterata dago, Ermuko Kardenal Orbe plazan.

Bertan dantzan egiten azaltzen dira:  
Jon Idigoras, Pako Aranburu,  
Felipe Azagirre,  
Santi Uzuriaga,  
Justo Azagirre, Sabin Gisasola,  
Bixente Azagirre  
eta Santos Aranburu.



## ERMUA 1964



Atzetik 'Carte Postale' dinoen honek, lagun arteko zoriontze-postal moduan izan zen erabilia. Fernando Izagirri bere lagun Aitor Fuldainek bidali zion, nahiz eta argazkiak Fernando berak ateratakoak izan. Ermuko hiru txokorekin batera, 'Ostatuko' semea eta euren laguna zen Victor Mallagarai agertzen da bertan.

Hauxe dakar idatzita:  
Ermua 10/4/64.  
Zorionak urte azkotarako.  
Aitor.

Zure argazki zaharrak atal honetan argitaratu nahi badituzu, ekarri Elexostera (Erdikokale 2, 1) edo deitu 943 17 93 50 telefonora. Argazkiek 25 urte izan beharko dituzte gutxienez eta momentuan eramango dituzu bueltan. \*

**MENDIOLA**  
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19  
Telefonoa 943 17 22 43

48260 ERMUA  
(Bizkaia)

**Quetzal**  
[arropa, bitxiak, opariak...]

berria!!  
ekainetik aurrera  
**Eibarren** ere

Golenkale, 9 • 48260 ERMUA 943170065  
Zuloagatarren, 7 • 20600 EIBAR 943531500



**Gero eta ohikoagoa da etxeko balkoi eta terrazetan tomateak eta piperrak ereitea, hau da, baratza etxean izatea. Horrek aukera ematen digu elikagai osasuntsuak eta zapoetsuak ekoizteko eta gainera pertsona lurrera, naturara eta bere ziklo naturaletara gerturaten du adituen ustez; bizi-ohitura lasaiagoak sustatzen ditu eta bioaniztasun-irak eta CO2-aren aurkako gordelekuak sortzen ditu.**

**Lekua izanez gero, ortua izango zenuke etxean?  
Inguruan hazitako barazkiak jateari garrantzia ematen diozu?**



Bai, gustatuko litzaidake ortua izatea. Tomateak, tipulak, letxugak... denetik ipiniko nuke. Inguruan hazitako barazkiak jateari ere garrantzia ematen diot, eta merkatura joaten saiatzen naiz, baina ez daukat denbora larregirik.

**Elena Sevillano, 43 urte**



Ez daukat lekurik etxean, baina lekua izango banu ere, ez nuke ortua ipiniko. Ez naiz ortuzalea. Hala ere, eroatera noanean, inguruan hazitako produktuei erreparatzen diet.

**Txela Gutiérrez, 41 urte**




Bai, baina zoritxarrez ez daukat lekurik. Terrazan ipini daitekeen guztia landatuko nuke: tomateak, piperrak, piperminak... Garrantzia ematen diot inguruko produktuak jateari, baina egungo egoerarekin, luxua da hori! Ortua duenak, altxorra du!

**Pedro Alconero, 46 urte**



Hasiera batean baietz esango nuke, baina ortuak lana eskatzen du eta ez daukat denborarik. Oso barazkizalea naiz eta asko estimatzen dut inguruko ortuetan hazitakoa jatea; horregatik, asteartero, Ermuko Erkotaldeko otarra jasotzen dut.

**Yolanda Martín, 35 urte**



## ZINEA

**1etik 2ra:**

'Blue Jasmine' +  
'Pacto de silencio'

**7tik 9ra****14tik 16ra****21etik 23ra****28tik 30era**

Zehaztu gabeko filmak

Hainbat ordutegi. Ermua  
Antzokian.

## ZINE-KLUBA

**Hilak 5****Hilak 12****Hilak 19****Hilak 26**

20:30ean.

Ermua Antzokian.

UMEENTZAKO  
ZINEA**Hilak 1:**

'Un pez fuera del mar'

**Hilak 8:**

'Cazadores de sombras'

**Hilak 15:**

'Turbo 3D'

**Hilak 22:**

'Doraemon y Nobita  
Holmes'

**Hilak 29:**

'Un pez fuera del mar'

17:00etan. Antzokian.

## MUSIKA

**Hilak 6:**

Kontzertua: Sidonie.  
22:15ean. Antzokian.  
Sarrera: 12€

**Hilak 14:**

Kontzertua: Zumake +  
Ermuko abesbatzak.  
20:00etan. Lobiano  
Kultur Gunean.

**Hilak 18:**

Kontzertua: Alboka  
Musika eskolako  
ikasleak. 19:30ean.  
Ermua Antzokian.

**Hilak 21:**

Kalejira: Irulitxa  
txaranga. 18:30ean.  
Orbe Kardenalaren  
plazan.

**Hilak 21:**

Jazz-Blues Kontzertua:  
Iñaki Rodríguez Group.  
20:00etan.  
Lobiano Kultur Gunean.  
Sarrera: 8€

**Hilak 27:**

Kontzertua:  
Lagarto amarillo.  
22:15ean. Antzokian.  
Sarrera: 12€

**Hilak 28:**

Kalejira:  
Ermuan kantuan.  
12:30ean. Orbe  
Kardenalaren plazan.

## ANTZERKIA

**Hilak 13:**

'La última oportunidad',  
Julian Iantzi eta Gurutze  
Beitiarekin. 22:15ean.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera: 10€

**Hilak 14:**

'Historia de una  
escalera', Sutegi  
antzerki taldearen  
eskutik. 17:00etan.  
Ermua Antzokian.

**Hilak 20:**

Antzerkia: 'Macho-  
maris'. Markus eta  
Juanmanolorekin.  
22:15ean. Antzokian.  
Sarrera: 8€

## ERAKUSKETAK

**Hilaren 2tik 15era:**

Margoak: Ermuko  
Udal Margo Eskolako  
ikasleak.

**Hilaren 19tik 21era:**

Gabonetako  
apaindurak.  
18:00etatik  
20:00etara. Lobiano  
Kultur Gunean.

**Azaroaren 30ean:**

Ermuan Kantuan.  
12:30ean plazaik  
irtenda.

UMEENTZAKO  
IKUSKIZUNAK**Hilak 14:**

Ipuin-kontaketa.  
17:30ean. Liburutegian.

**Hilak 24:**

Olentzero txiki.  
11:00etan. Plazatik  
irtenda.

**Hilak 26:**

Pailazoen ikuskizuna:  
Poxpolo eta konpainia.  
17:00etan. Antzokian.  
Sarrera: 4€

**Hilaren 26tik 4ra:**

Gabonetako Haur  
Parkea: 11:00etatik  
13:00etara eta  
16:00etatik 20:00etara.

**Hilak 28:**

Umeentzako antzerkia:  
'Ali Baba eta  
40 lapurrak', Borobil  
taldea. 17:00etan.  
Antzokian. Sarrera: 4€

**Hilak 31:**

Olentzeroaren harrera.  
18:00etan. Plazatik  
irtenda.

## BESTELAKOAK

**Hilak 20:**

Laburmetraien  
emanaldia. 18:00etan.  
Lobiano Kultur Gunean.

Patxi López



**TXINDURRI**

**TALDEA**

**Tokian  
tokiko**

**PRO**



- ARRAINDEGIA  
- ITSASKIAK  
- ARRAIN FRESKOAK ETA  
IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA  
OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
" 17 24 33 (etxea)  
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
ERMUA

**Infreñu  
Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
[www.infretaberna.com](http://www.infretaberna.com)



**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia  
- Biolina  
- Biolontxelo  
- Bonbardino  
- Flauta  
- Kantua  
- Gitarra  
- Gitarra elektrikoa  
- Gitarra baxua  
- Lengoia musikala  
- Klarineta  
- Panderoa  
- Perkusioa  
- Pianoa  
- Saxofoia  
- Tikitritxa  
- Tronboia  
- Tronpeta  
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • [albokamusikaeskola@hotmail.com](mailto:albokamusikaeskola@hotmail.com)

Abenduaren 3a,  
EUSKARAREN Nazioarteko eguna

# Euskara ahora!



Euskal  
Birusa  
Elkartea



---

**Euskal Birusa Euskara Elkarteak sagarrak banatuko ditu Patxi plazan  
euskararen erabilera sustatzeko**



# BAÑOS



**6. urteurrena  
ospatuko dugu.  
Eskerrik asko  
zure konfiantzagatik!!**

**Baldespina markesa 16, behea - Denda: 692 67 42 98 - Manu: 667 61 87 11**

